



## GOBERNUAREN LEHENENGO 100 EGUNAK (2013ko martxoa) Prensa oharra

### GOBERNUAREKIKO KONFIANTZA

EAEko arazoak konpontzeko Gobernuak duen gaitasunari buruz galdetuta, herritar gehienek (%60k) adierazi dute badakiela zer egin behar duen baina denbora behar duela eta %26k uste dute ez dakiela arazoak nola konpondu.

Herritarren %77k diote Gobernu hau espero zuten bezala jokatzeko ari dela.

Orain arte Gobernuak egin dituen jardueretan, onenak bezala jendeak gehien aipatutakoak dira: elkarrizketaren aldeko jarrera, ilusioa, itxaropena eta lasaitasuna ekartzea eta osasungintzaren kudeaketa. Orain arte okerren egindakoen artean aipatu dira: elkarrizketarako jarrera falta, kudeaketa ekonomikoa eta jarduera falta.

### GOBERNUKO KIDEEN EZAGUTZA MAILA BAXUA

Iñigo Urkullu Lehendakaria eta Josu Erkoreka Gobernuaren bozeramailea dira Gobernuko kiderik ezagunenak (%98k eta %85ek ezagutzen dituzte hurrenez hurren), baita kalifikaziorik onenak jaso dituztenak ere. Gainerako sailburu guztiek 5,5 eta 5,9 puntu arteko kalifikazioak lortu dituzte, nahiz eta askoz ezezagunagoak izan.

### GOBERNUAK ONIRITZIA DU

Herritarrek oniritzia eman diote Gobernuari galdetutako ezaugarri guztietan: Gestiorako gaitasuna (5,8, 0tik 10erako eskalan), zintzotasuna (5,7), akordioak lortzeko gaitasuna (5,6), herritarren arazoekiko hurbiltasuna (5,3) eta ilusioa sortzeko gaitasuna (5,1).

Lehenengo hilabete hauetan Gobernuak izandako jarduerak 5,4 puntuko kalifikazioa lortu du 0tik 10erako eskalan.

Oposizioko inolako alderdik ez du lortu 5 puntuko kalifikazioa 0tik 10erako eskalan, baina EH BILDUK lortu du puntuaziorik altuena (4,5). Gobernuak itunak egin ditzan nahiago den alderditzat EH BILDU aipatu da gehien (%37), atzetik PSE-EE duela (%29).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 950 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm 3,24\%$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2013ko otsailaren 27a eta 28a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

[http://www.euskadi.net/ikerketa\\_sociologikoak](http://www.euskadi.net/ikerketa_sociologikoak)

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 25a